



Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko elkarteak eta programak finantzatzeko dirulaguntzen deialdi publikoa. Elkarte eta programa horien helburuak honako hauek dira: emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gainditzea, emakumeak ahalduntzea, eremu guztietan parte hartzea eta indarkeria matxista prebenitzea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da, eta haren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Alkatetzaren 2023ko apirilaren 18ko 2023-0777 Dekretuaren bidez, Berdintasun Arloari 2023ko ekitaldian dagozkion dirulaguntzen deialdi publikoa onartu zen.

2023. urtean, eskabideak aurkezteko epea hamabost laneguneko izango da, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Diru-laguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatze modua honako hauek dira: emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan elkarteak eta programak finantzatzera bideratutako dirulaguntzak norgehiagoka-araubidearen bidez emateko oinarri arautzaile espezifikoetan ezarritakoak, baldin eta dirulaguntzen helburuek erreferentzia egiten badiete gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak gainditzeari, emakumeak ahalduntzeari, eremu desberdinetan parte hartzeari eta indarkeria matxista prebenitzeari. Oinarri arautzaile horiek 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onartu ziren, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2022ko apirilaren 13an (72. zk.), eta, behin betiko, 2022ko ekainaren 8an (109. zk.)

Berdintasun Arloari dagozkion dirulaguntzetan parte hartzen duten erakundeentzako dirulaguntzetara bideratutako zenbatekoa 23.3344.481.10 aurrekontu-partidari egozten zaio, honako azpillerro hauetan banakatuta:

1. **azpillerroa:** Emakume-elkarteen eta elkarte feministen ohiko funtzionamendua mantentzea: zenbatekoa: 5.000,00 euro.
2. **azpillerroa:** Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak: Zenbatekoa: 15.000,00 euro.
3. **azpillerroa:** kirol-arloan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko proiektuak: Zenbatekoa: 2.000,00 euro.

Galdakao, 2023ko apirilaren 19a. — Alkatea, Iñigo Hernando Arriandiaga.

